

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Delicias de Eva Argiñano para hacer en casa

Eva Argiñano

BAINET

200 orrialde

22,95 euro

Eva Argiñanoren errezeta gozoak

Era guztietako plater gozoak egingen daki Eva Argiñanok baina *Delicias para hacer en casa* liburuan bereziki postre modura jan ohi diren 90 adibide atsegin eskaintzen dizkigu. Erremolatzaz, udare, sagarrez edo txokolatez egingako bizkotxoak, gailetak, tartak eta bestelako opil gozoak; baita edari izoztuak eta izozki mota ugari ere. Erraz aurki ditzakegun elikagaiekin osatuta daude guztiak eta etxean egin ditzakegu lasai asko. Errezeta horietako bakoitza Juantxo Egañak egindako argazkiz lagunduta azaltzen da liburuan, prestatzera goazekoa zer nolako itxura har dezakeen ikus dezagun. Argazkien azpian berriz, postrearen prestakuntzari Eva Argiñanok gehitu dion aholkua aurkituko du irakurleak. ■

Komunean bizi izandako ametsa

Zortzi urte baino gehiago dituzten neska-mutikoentzat aproposa den istorioa sortu du Leire Bilbaok, eta Jokin Mitxelena egin ditu marrazkiak. Kezkatuta dagoen neskatila du protagonista: etxean bost lagun dira eta bakoitza gogoan jartzen zaionean komunera joaten denez, arazoak dituzte. Komun txikia dute etxean, ez dira bostak kabitzen. Aitonaren etxeko bainugela, ordea, nahiko zabala da. Gainera, hain dago gertu itsasotik, marea altu dagoenean komun zuloraino igozten dela itsasoko ura. Abantaila paregabea, horrelakoetan ez baitaukate bonbatik tira beharrik ere. Arrantzalea izandakoa da aitona, eta erretiroa aspaldi hartu bazuen ere, arrantzan egitea du gustuko. Etxeko leihotik egingo luke, aguazilek isuna jarriko ez baliote. Dena den, isilean, komun zulotik egitea erabaki du. ■



Komunean galtzen naiz

Leire Bilbao, Jokin Mitxelena

ELKAR

44 orrialde

7,60 euro



Yuri Sam. Otoitza / Au revoir, triunfadoreak!

FTI Antzerkiola Imaginarioa

ARTEZBLAI

98 orrialde

9 euro

FTI-Antzerkiola Imaginarioa desenkantutik aldentuz

Duela hamar urte, Guggenheim museoari eta letra larriz idatzitako kultura ofizialari erantzuteko asmoz sortu zen Bilbon Mina Espazioa. Han jaiotako Antzerkiola Imaginarioaren agurra datorkigu *Yuri Sam. Otoitza* eta *Au revoir, triunfadoreak!* testu dramatikoekin batera. Antzerki ikerketarako laborategi modura ekin zion aurrera FTI-Antzerkiola Imaginarioak, eta antzerki lengoia propioaren bila ibili da geroztik. Ahalegin horretan, hainbat antzezlan osatu eta antzeztu ditu, eta haien artean daude agur modura Artezblai argitaletxearekin plazaratu dituen formatu handiko antzezlanok ere. Esaterako, 2000 urteko neguan hil zen arren kosmosetik bidaiatzeko aukera duen *Yuri Sam*, eta desenkantutik aldentzea helburu duen *Au revoir, triunfadoreak!* ■

Mariren Erradiografia

Posible ote da inkontziente kolektiboa kontziente bihurtzea? Horixe da Alfontso Martinez Lizardukoak eta Jon Baltzak *Mariren erradiografia. Euskal inkontziente kolektiboaz* lanean aurkeztzen dituzten galderetako bat. Eta hariari tiraka, ikertzeari ekin diote: inkontziente kolektiboa zer den, hura berreskuratzeko bideak, euskal historiaurreko sinbolo arketipikoak eta Mariren euskal panteismo naturalistatik, zientzia garaikidearen panteismo holografikora doazen guztiak, *Mariren mitoa eta euskara leize-zuluan* atalarekin azterketari amaiera eman arte. Egileek Mariren barneko egituraren matriarkalismo panteista dagoela agerian jarri dute, horretarako adibide ugari eskainiz. Eta mitoaren bidez euskaldunek espazioa eta denbora nola antolatzen duten, baita horrek gure inkontzientean nolako eragina izan duen ere. ■



Mariren erradiografia

Alfontso Mtz. Lizardukoak, Jon Baltza

GAIAK

324 orrialde

21 euro



Fermin Muguruz
Batzuen artean
 TALKA
 200 orrialde + DVDa
 20 euro

Fermin Muguruzaren argazki liburua eta DVDa

Fermin Muguruzak argazki liburu eta DVD batean bildu ditu hainbat abesti eta bizipen, hasi 18/98 makroaizian auzipetutako guztien alde 2006ko azaroan Barakaldon eman zuten kontzertutik eta 2007an mundu osoan egindako biraraino. Lan berriak *Fermin Muguruz Afro-Basque Fire Brigade* du izena. Fer Aporen sarerrerari biraren argazki bilduma eta *Euskal Herria Mundua Clash* 50 minutu irauten duen dokumentala gehitu dizkio. Aukeratutako kantuen artean, honako hauek daude: *Baxna eta Larra*, *Euskal Herria Jamaika Clash*, *Mendebal-darketa*, *Nik Baditut Sei*, *Maputxe*, *La Fille du*

Quartier Populaire, *La Linea del Frente*, *El Último Ska*, *Milaka Bilaka*, *Gora Herria* eta *DUB Manifest*. ■

Ipuinen amaiera aldatzeko era eskaintzen duen liburua

Zenbat aldiz ez ote dugu, ipuin edo film bat bukatzean amaiera aldatzeko gogoia sentitu? Bada horixe egiteko aukera eskaintzen digu Ula Prap idazle esloveniarrak idatzi eta Aitor Aranak euskaratu duen *1001 ipuin* liburuak. Liburu honetako istorioak ohikoak izan daitezke, baina badute berezitasunik: ipuin bakoitza birsortzeko aukera eskaintzen zaio irakurleari orrialde bakoitzaren bukaeran auke-
 ran ematen zaizkion bi bideekin. Amaiera bat ez duela gustuko? Bada, aldatu eta kito! ■

1001 ipuin

Ula Prap

IBAIZABAL

32 orrialde / 14,50 euro



EIDER RODRIGUEZ

«Erortzen diren gizon-emakumeen kronikatxoak dira»

Zerk bultzatu zaitu ipuin mikatz hauek idaztera?


Egungo psikologian bada eskola bat saiatzen dena gizakia bere ingurunera egokitzen. Korrante honek, nik uste, gizartearen gainbehera adierazten du argi eta garbi. Garai idealistago batzuetan utzi egiten zitzaion gizakiari xelebre izaten eta izateko manera propioa edukitzen. Gaur egun, ez; egokitu beharra dago. Xelebrea da ze, horrek behartzen du gizakia maskara batekin bizitzera. Nik, ordea, irudikatzen dut humanoa harkaitzetik harkaitzera jauzika, desoreka etengabea, beti erortzeko zorian, aldika eroriz, erortzen denean zutitzen ahaleginduz... eta halako batean zutitzea lortzen ez baldin badu, segituan izango du alboan jaun edo andere konduktista bat esanez: zutitu behar duzu! Izan ere, gaur egun erortzea itsusia da, ezin zara erori; ez da egokia; gehiago esango nuke: debekatuta dago

Eta nola laburbilduko zenuke *Haragia*-ren mamia?

Erortzen diren gizon-emakumeci buruzko kronikatxoak-edo dira. Hala ere, ez dut inor izutu nahi, ez da psikologia liburu bat. Zerbait izatekotan da gizakia egokitzea bultzatzen duen psikologia horren aurkako ipuin bilduma bat.

Zein izan da zure ahaleginaren helburua?

Gutako bakoitza den pertsona konplexu eta ñabarduraz bete kanporatzen saiatu naiz. Hari begira jarri eta pertsona bizia, etorri handikoa, dibertigarria aurkituko dugu, baina baita ere pertsona gezurtia, maltzurra, bekaiztia, gaiztoa askotan. Hala ere, makurkeria hori bakardadean dagoenean baino ez dugu aurkituko, beste gizakien artean dagoenean gauza "txar" horiek guztiak gorde egiten dituelako.



LANDER GARRO

Eider Rodriguezen hamabi kontakizun mikatzak

Zorrotza da Eider Rodriguez. Hala-koa da hainbat komunikabidetan argitaratzen dituen artikuluetan, eta halaxe agertu zen *Eta handik gutxira gaur* liburuan. Bada, are zorrotzago azaldu zaigu *Haragia* ipuin bilduma mikatzean. Gizakiok badugu alde makur bat, Eider Rodriguezen ustez, besteez inguraturik gaudenean –egokitu beharraren poderioz- edo– ondo gordetzen ahalegintzen garena, horrek pertsona egoki, gris eta politikoki zuzen bilakatzen bagaitu ere; pertsona konduzituak, idazlearen hitzetan. Horri aurka egin beharra sentitu du idazleak, eta gizakion konplexutasuna azaleratzen aha-
 legindu da, samurtasunari leku gutxi uzten dioten hamabi kontakizunetan. Gizakion motibazioak bilatzen saiatu da Eider Rodriguez, maitatzeko eta gorrota-



Haragia
Eider Rodriguez

SUSA

156 orrialde

14 euro

tzeko ditugun motiboak zehazten eta islatzen, inolako kontzesiorik gabe. Haur bati bizia salbatzen dion gizonaren "saria" eskuratu nahia agertzetik hasiz eta jarraian preso baten gose greba eta huelga egiteko esan dion abokatua oporrak alderatuz. Bizitzan jokatzeko ditugun rolek nora eramane gaitzaketen erakutsi du Rodriguezek liburu honetan. ■

egileari galdezka